

AIARALDEA *hemen*



ANE RAMOS IZAGA:
“Erortzen ikastea da egin behar
duzun lehen gauza patinatzen
hasten zarenean” 14-15 or.

AIARALDEA JAIETAN:
San Prudentzio, San Jose
Gardea eta Otxomaio jaiet
buruzko gehigarri berezia



“Gustatuko
litzaidake
pentsatzea
bidea urratu
dudala atzetik
datozenentzat”



OTXOMAIO
Urduña jaietan **2024**
MAIATZAK 3 - 12

PAELLA ETA TORTILLA TXAPELKETA · BIGANTXAK · ERROMERIAK
HERRI KIROLAK · KALE DINAMIZAZIOA · DANTZALDIK · ESKU PILOTA
PARTIDAK · PURO RELAJO · PLAY BACK LEHIAKETA · AURRESKU ETA
FANDANGO LEHIAKETA · LOS ZOPILOTES TXIRRIAOS · ETA ASKOZ GEHIAGO!



Egitarau
osa hemen



elkarrizketa

“Inoiz inori nik bere garaian izan nituen zalantzak sortzen bazaizkio, jakin dezala baduela norengana jo”



BAMBIK (Amurrio, 1999) DIRU BILKETA ABIATU BERRI DU, BERE TRANTSIZIO PROZESUAREN BARRUAN, AURPEGIA FEMINIZATZEKO ASMOZ. TRANS KOLEKTIBOAREN EGOERAREN ETA BERE IBILBIDE ARTISTIKOAREN INGURUAN MINTZATU DA.



Testua eta argazkiak **Aimar Gutierrez Bidarte**

Lehenik eta behin, nor da Bambi?

Hau da ohikoan erantzutea gehien kostatzen zaidan galdera. Nor da Bambi? Suposatzen dut 25 urteko artista multidiziplinar transa naitela. Trans pertsona bat naiz gauza gehien gainetik, eta nire prozesu artistikoan isla handia dauka horrek. Zer gehiago naiz? Pixkat sorgina ere bai banaiz. Klaxea dirudi baina pertsona libre naiz, gainerako irizietatik aparte bere bizitza bizi nahi duena.

Aipatu duzu trans pertsona izateak gauza ororen gainetik definitzen zaituela.

Gauza guztien gainetik ez bada, gehien gainetik banaiz. Trans, marika eta lodi gisa definitzen dut nire burua. Transa, trantsizio bat egin duen pertsona naizelako. Marika, emakume trans bat izan arren, kolektiboarekin harremanetan egoteko bere modua galdu ez duen pertsona naizelako, zirku bat naizelako, eta nahi dudana egiten jarraitzen dudalako, maskulinoztat edo femininoztat juzgatzeko beldurrik gabe. Eta lodia, agerikoa delako [barreak].

Nola hasi zen zure trantsizio prozesua?

Istoria polita da. Nire lagun trans askok aipatzen dute txiki-txikitatik zekitelako emakume transak zirela, ikusteko gai zirela. Ez da hori nire kasua. Ni beti izan naiz normatik ateratzen zen mutiko bat —maskulinoa erabiliko dut, horrela adierazten dut nire garaiko burua eta—, mutiko arraro bat. Ordea, txikitik ez nuen inoiz sentitu gizonetzko baten gorputzean harrapatuta zegoen emakumezkoa nintzenik, are gutxiago.

Hamabost urterekin draga egiten hasi nintzen, eta hor sortu ziren nire lehenengo pentsamenduak. Orduko hartan draga ez zegoen hain hedatua, eta ez zegoen draga egiten zuen nire adineko ia inor. Hor hasi nintzen genero-identitatearekin jolasten eta abar. Artista drag-ak ezagutzen hasi nintzen, eta baita trans pertsonak ere. Batzuekin zein besteekin identifikatzen nintzela ohartu nintzen. Oraindik nire burua ez zen gai ulertzeko bi esparrutan aritu nintekeela; hau da, trans pertsona bat drag munduan aritu zitekeela. Kale edo bale zen, edo pertsona trans bat zara edo draga egiten duzu.

Esan ohi da drag ikuskizunek bidea egiten laguntzen dietela trans pertsonari. Ez da nire kasua. Nirea

interes artistikoa zen, ez nuen dragaren beharrik gauza femenoekin esploratzeko. Ikuskizunetik kanpo ere zirko bat nintzen ordurako, baina nire egoera berdinean zeuden pertsonak ezagutzeko aukera izan nuen.

Buruari eragiten hasi nintzen: “Eta draga egiten duen mutiko bat baino zerbait gehiago baldin banaiz?” Garai horretan deskubritu nuen La Veneno, eta ordura arte ez nuen erreferentea aurkitu nuen bertan. Gerora deseraiki egin dut zertxobait mitoa, baina oso garrantzitsua izan zen niretzat.

Prozesu guzti horretan erreferenteak izatea ezinbestekoa izango da, ezta?

Oso garrantzitsuak bai. Nire erreferenteak ez dira inoiz izan, ordea, egungo pertsona trans erreferenteak. Nik beti izan ditut inspirazio 1970eko hamarkadako erreferenteak. Nire izena, Bambi, 1940ko hamarkadako Parisko Vedette baten omenez jarri nuen.

Pentsatzen jarrita, ez nuke gaur egungo trans erreferente bakar bat ere aipatuko; nire lagunak, noski, baina esfera horretatik kanpo inor ez. Pertsona nagusiagoetan daude nire erreferenteak.

Azken urteetan trans YouTuber ugari agertu dira, baina niri ez didate inoiz aparteko interesik sortu. Nik XX. mendeko artistak nituen ipar, generoarekin jolastu eta esperimentatu zuten haiek. Garai hartan genero-identitateaz ezer gutxi hitz egiten zen, eta uste dut gaia ikuspegi irekiagoetik eta esperimentaletik heldu ziotela nire erreferente direnak.

Uste dut gaur egungo trans erreferenteak oso ikuspegi itxietatik hitz egiten dutela trantsizio prozesuen inguruan: emakume transa bazara bide hau jarraitu behar duzu eta %100ean emakume bihurtu behar zara... Gaur egungo erreferenteak oso erreferente binarioak dira, eta, nahitaez gure bideak markatzen dituzte. Nik ere nire burua erreferente eta korrante horietatik markatua ikusten dut, nahi ez dudana arren. Hori guztia esanda; erreferenteak berebizikoak dira niretzako, ezin dut nire bizitza ulertu haiek gabe. Egiten dudana, esaten dudana, janzten dudana... dena dago erreferenteetan oinarrituta.

Duela hilabete batzuk ebakuntza egiteko erabakia hartu zenuen.

Egiteko baino, ebakuntza finantzatzeko erabakia [barreak]. Trantsizio prozesua abiatzen duzunean, ideal batzuen baitan egiten duzu. Helmuga jartzen diozu zure buruari: hau eta bestea egingo dut, eba-

elkarrizketa

kuntza hura... Lehen aipatzen genuen erreferenteen ildotik, hedabideetan agertzen diren pertsona trans gehienek hori egiteko baliabide ekonomikoak dituzte, eta trans pertsona gehienak ez gaude egoera horretan. Nire prozesua asmo handiekin hasi nuen, baina ikasi nuen gauzak beste modu batera egin beharko nituela, desiratzen nuen hori egiteko baliabiderik ez nuela. Horrek, ordea, topea dauka; zure buruaren onarpenak mugak ditu. Disforia etengabe batean bizi naiz ni, izugarritzko antsietatea sortzen dit, eta uneoro ari naiz nire zalantzekin borrokan. Denbora luzez pentsatu ostean, crowdfunding kanpaina abiatzea erabaki nuen GoFundMe plataformaren bidez, aurpegiko feminizazioa egiteko. Asko kostatu zitzaidan erabakia hartzea. Nik beti irudikatu dut nire burua pertsona indartsu bat bezala, eta horrela azaldu naiz jendaurrean. Urrats honek nire ahultasun asko azalera suposatzen zuen.

Nire inguruan ohikoak izan dira horrelako kanpainak kirurgiari finantzatzeko. Lagunen artean elkar laguntzeko modua da. Seku-

la ez nuke pentsatuko izan duen oihartzuna izango zuenik, Amurrión eta inguruan hainbeste zabalduko zenik, eta hainbesteko babesak jasoko nuenik. Zenbat eta antz handiagoa izan zure buruaz amestu duzunarekin, orduan eta autentikoagoa izango zara. Denbora asko daramat esaldi hori nire ingurukoei errepikatzen, baina ez diot inoiz nire buruari aplikatzen. Orain da ueña.

Uste duzu klase sozialak eta baliabide ekonomikoek trans pertsonen trantsizio prozesua baldintzatzen dutela?

Erabat. Azkenaldian, sektore erreazionarioen aldetik asko errepikatzen ari da trans-a elitista dela. Transa ez da elitista inondik inora, elitistak dira inposatzen zaizkigun kanon estetikoak, eta artaldean integratuta egoteko jarraitu behar ditugunak.

Transa marjinala da. Kolektiboko pertsona gehienok oso baldintza prekariotan bizi gara, langabezia tasa izugarria da...

Trans pertsonen lana aurkitzeko zailtasuna salatu egin duzu.

Trans pertsonen %85 langabezian

daude. Datu erreala da hori. Nik neuk bizi izan ditut bazterketa egoerak: argudiatu egin didate pertsona trans edo "normal" baten kontratazioaren aurrean, bigarrenak gaitzespen gutxiago eragiten duela. Okerrena da ni diskurtso hori irenstera iritsi naizela ere.

Zure ibilbide artistikora itzuliz, zer garapen izan du azken urteetan?

Nik makillajea ikasi nuen, pelikuletako efektu bereziekin beti erakarri izan nautelako. Pragan opera batean egin nuen lan, eta Amurrióna bueltatzerakoan Madrilera jotzea erabaki nuen. Bertan argazki-sezioetan makilatzen hasi nintzen, baina segituan jarri ninduten kamara baten aurrean modelo lanetan. Sekula ez nuen pentsatu horretan arituko nintzenik. Gauza batek bestera eramanez ninduen eta aktore lanetan edota performanceetan ere bukatu dut. Iruzurtiaren sindromearekin elkarbizitzen ikasi dut [barreak].

Artista ezagun ugarirekin aritu naiz lanean; Samnatha Hudson, La Prohibida, Karmento... Paul Preciadorekin ari naiz orain, berak

“Trans-a marjinala da. Kolektiboko pertsona gehienak oso baldintza prekariotan bizi gara, langabezia tasa izugarria da...”

sortutako antzerki pieza batean. Paul nire erreferente nagusietako bat izan da, berarekin lanean hasi aurretik ere.

Paul Preciado Katalina Erasori buruzko erakusketaren ostean jarri zen nirekin harremanetan, nik ezin nuen sinetsi. Bi urte daramatzagu hainbat herrialdetatik antzezlanak tularatzen.

Amurrión eragina izan duzula uste duzu?

GoFundMe kanpaina abiatu nuenetik, asko aldatu da Amurrión-kiko dudak pertzepzioa. Asko hedatu zen nire bideoa, eta jende askok erakutsi zidan babesak. Herri irekia dela deritzot, baina horrek ez du esan nahi kalera ateratzen naizenean barreak eta komentarioak entzuten ez ditudanik. Horregatik, asko hunkitu ninduen bideoak eta nire eskaerak izandako harrerak. Babes eta berotasun hori eskertu nahi ditut.

Gustatuko litzaidake pentsatzea atzetik datozenentzat bidea urratu dudala nolabait. Amurrión inoiz inori nik bere garaian izan nituen zalantzak sortzen bazaizkio, jakin dezala baduela norengana jo.



herriz herri

Aiaraldea

Etxeko Laguntza Zerbitzuan murrizketarik ez aplikatzeko eskatu dute

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

EH Bilduk salatu duenez, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen Sailak emandako jarraibidearen arabera, Etxeko Laguntza Zerbitzuan murrizketak aplikatuko dira. Hain zuzen ere, hemendik aurrerako eskatzaile berriei ez zaie eskainiko gaur egun Arabako ia ehun lagunei eskaintzen zaien hiru orduko

zerbitzua. Gizarte Zerbitzuen Sailak Oinarrizko Gizarte Zerbitzuei igorritako jarraibidearen arabera, arreta-orduak aldatuko dituzte menpekotasun 0 gradua duten pertsona autonomoei. Aurrerantzean, neurri horren aplikazioa salbuespeneko izango da, eta ez zaie erabiltzaile berriei eskainiko.

Egoera horren aurrean, EH Bilduk mozioak aurkeztu ditu zenbait udal-letan, tartean Aiara eta Artziniega-

ko Udaletan. "Bertan, Arabako Foru Aldundiari eskatzen zaio instrukzio hori indarririk gabe uzteko, autonomoei eskaintzen zaien zerbitzuari dagokionez. Izan ere, mendekotasun-arriskuan dagoen erabiltzaileari etxean egoten laguntzen dion oinarrizko zerbitzua da, eta etxeko laguntza zein laguntza pertsonala eskaintzen dizkio" azaldu du koalizioa subiranistak plazaratutako oharrean.

Tren zerbitzua irisgarria egitea exijitu dute pentsiodunek



Erreklamazio kolektiboak tramitatu dituzte pentsiodunek. Aiaraldea.eus

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Tren zerbitzuaren irisgarritasuna aldarrikatzeko baliatu dituzte Aiaraaldeko pentsiodunek azken asteleheneeko elkarretaratzeak. Audio, Amurrio eta Urduñako tren geltokietara jo dute, eta erreklamazio kolektiboak tramitatu dituzte lehiatiletan, trenak irisgarriak izatea eskatuz.

Modu horretan, pentsiodunen mugimenduak bat egin du Maria Luisa Goikoetxea eta Itziar Molesek duela zenbait aste zabalduko deiarekin. Erreklamazioak egiteko deia zabaldu zuten martxoan bi urduñarrek, Renfek jarriko dituen tren berriak irisgarriak izatea eskatzeko. Amurrioko pentsiodunek handik egun batzuetara jo zuten udalerriko tren geltokira hori eskatzeko, eta berriro itzuli dira azken astean.

Mantenu langileak greban

Renfeko mantenu langileek hamar eguneko greba abiatu zuten apirilaren 15ean, kudeaketa txarra salatzeko. Apirilaren 25era arte luzatuko da greba.

Izan ere, mantenua euren gain hartzen duen kolektiboak gogoratu du 446 serieko trenek (Aldirikoe-tan erabiltzen direnak, alegia) 33

urte dituztela jadanik, eta materialak ez direla fidagarriak.

Horrek esan nahi du matxurak biderkatzen direla eta, gainera, Renfek ez du neurririk hartu hori bideratzeko, UGT, CCOO eta CGT sindikatuen aburuz. Haste-ko, beharginek kritikatu dute azpiegiturak ez direla egokiak: "Lan elektrikoak mugatzen dituzten itoginak daude, lapurretak maiz gertatzen dira eta *graffiteo* ere arrunta da segurtasun faltagatik".

Halaber, piezen eta elementuen gabezia ere aipatu dute. "Motor elektriko batek astebete behar du heltzeko eta tarte horretan trenak indar erdiarekin bidaiatzen du, atzerapenak eraginda", adierazi dute sindikatuek.

Azkenik, azpimarratu dute langile kopurua ez dela nahikoa. Trenek 33 urte dituzte eta, matxurak gero eta ohikoagoak direnez, behargin askoz gehiago behar dira. Horren adibidea da, euren ustez, aire egokituarena. Azpikontrata bat dago horretarako. Baina, sindikatuek azaldu dutenez, "trentan egun eguzkitsu batean bidaiatzea nahikoa da ikusteko ze bero pairatzen den".

Horrek guztiak, gainera, langileen soldatetan dauka eragina, "bete ezin diren helburuak" jar-tzen direlako, euren hitzetan.

Familia handitzera goaz! 3 LANGILE BEHAR DITUGU

AIARALDEA EKINTZEN
**FAK
TO-
RIA**



AIARALDEA KOMUNIKABIDERAKO KAZETARIA

% 50eko lanaldia

Albisteak idazteko, ekitaldiak estaltzeko, argazkiak ateratzeko, bideoak grabatzeko... kazetaria bilatzen dugu.

AIARALDEA
**FAK
TO-
RIA**



KOMUNIKAZIO ARDURADUNA

% 75eko lanaldia

Aiaraldea Ekintzen Faktoriako sare sozialen kudeatzaileaz (CM) gain proiektu desberdinen komunikazio aholkularia izatea bilatzen dugu.

AIARALDEA EKINTZEN
**FAK
TO-
RIA**



KUDEATZAILEA

% 100eko lanaldia

Kudeaketa ekonomikoa, Langile kudeaketa, Gogoeta Estrategikoa... itsasontzi honen gidaritzan laguntzeko norbaiten bila gabilta.

AIARALDEA EKINTZEN
**FAK
TO-
RIA**

Euskararen eta eraldaketa sozialaren esparruan proiektu bizigarri baten eta lantalde gazte baten parte izateko aukera.

INTERESDUNEK
Kontsultatu:
labur.eus/2404eskaintzak
Edo deitu:
688 625 366



Artziniega

Garai Plazako erlojuaren dorrea goitik behera apaintzeko mural bila daude Artziniegan



Hamabi metroko altuera dauka Garai Plazako erlojuaren dorreak, bertan margotuko dute horma-irudia. **Artziniegako Udala**

Testua
Almar Gutierrez Bidarte

Horma-irudien I. Lehiaketa antolatu du Artziniegako Udalak, "artearen sustapenean sakontzeko" eta hiribilduko kaleetan barrena ibilbide muralistikoa sortzeko. Lehiaketaren lehenengo edizioak Garai Plazako erlojuaren dorrea goitik behera apainduko duen irudia aukeratzea izango du helburu.

Maiatzaren 13ra arte dago zabalik lehiaketan izena emateko epea. Epaimahai tekniko baten aztertuko ditu aurkeztutako lan guztiak, eta bozketa faserako eramango ditu proposamen onenak. Hautatutako lan guztiak udaletxean egongo dira ikusgai maiatzaren 17tik aurrera, eta 16 urtetik gorako Artziniegako herritar orok izango du bozka emateko aukera.

Epaimahaiaren eta herritarren ardura izango da, beraz,

Garai Plaza apainduko duen irudia aukeratzea. Horretarako, "proposamen artistikoen inguruarekin duten elkarrengina eta hiribilduko historiari eta tradizioei egindako erreferentziak" baloratu beharko dituzte. Dena ondo bidean, maiatzeko azken astean iragarriko da proiektu irabazlea, eta 5.000 euroko saria jasoko du.

Lehiaketaren oinarrietan jasotakoaren arabera, ekainaren 3tik 21era bitarte margotuko dute Garai Plazako horma-irudi berria, eguraldia lagun baldin badute betiere. Udalak 1.500 euroko aurrekontua prestatu du horretarako. Gauzak hala, horma-irudiaren aurkezpen publikoa ekainaren 22an egingo da aurreikusitako dute.

Horma-irudiak Artziniegan
Egitasmo honekin ibilbide muralistikoa sortu nahi du Artziniegako Udalak hiribilduan.

Honezkerobadira herria apaintzen duten zenbait horma-irudi, eta urtez urte bilduma hori handitzea da Udalaren asmoa. Udaletxe zaharreko atarian kokatuta dagoen murala da horren adibide: Velazquez Bredako errendizioa koardaren interpretazio librea eginez, herriko hainbat margolarik elkarlanean egindako lana da, eta Artziniegako bizilagunen erretratuak txertatu dituzte bertan. Artziniegako orain arteko horma-irudirik ezagunenak, ordea, parrokiako gangetako ilustrazioak dira. Zaharberitze ariketa original baten bidez, herriko margolari talde batek antzinako teknikak baliatu zituen Erdi Aroko eszena bilduma atariko gangetan margotzeko. Antzinako elementuak eta objektu anakronikoak nahastu zituzten bertan; hala nola, gazteluak eta telefono mugikorrak.

Urduña

Urduñan frankismoak errepresaliatutako pertsonak gogoan Errepublikaren Egunean



Ikur errepublikarra Urduñako Foru Plazan. **Aiaraldea.eus**

Testua
Almar Gutierrez Bidarte

Euskadiko Errepublikaren Bata-sunak II. Errepublikaren aldeko aldarria atera zuen kalera duela aste-bete Urduñan. Berez, taldeko presidentea Tomas Alberto Larrea hil zenetik ez zuten ekitaldi hori egingen, baina aurten kalera atera dute euren militantzia.

Berez, bi ekintza gauzatu zituzten. Alde batetik, ikur errepublikarra altxatu zuten Foru plazako hagan. Bestetik, kontzentrazio esparruan errepresaliatuei omenal-

dia egin zieten plaza bereko monumentuan. Hitzaldi laburra egin zuten bertan, non gogora ekarri zituzten "estatu kolpe faxistaren aurka borrokatzeagatik errepresaliatutako izen guztiak".

Horrez gain, EEBk gogoratu du Extremadurako Castuera udalerriari jardunaldiak egin zituztela pasa den asteburuan eta Urduña oso presente egon zela. Ez bakarrik Joseba Eguigurenek hitzaldia eskaini zuelako, baita ere Castuerako herritar ugari egon zirelako Urduñako kontzentrazio esparru frankistan.

arrate
gestoria aholkularitza aseguruak

Utzi zure
errenta **23**
profesionalen
esketan

Iturralde kalea 2, AMURRIO
945 89 02 06
info@arrategestoria.com
www.arrategestoria.com

Errenta-aitorpenaren plangintza
gurekin egin ezazu.

20 urte baino gehiagoko esperientzia

herriz herri

Areta

Aretaren herri nortasuna aldarrikatu dute marea zuri-gorriarekin



Eguraldia lagun, giro ona izan zen nagusi goizetik iluntzera arte. [Aiaraldea.eus](https://aiaraldea.eus)

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

"Herri izaera aldarrikatzea eta bizilagunen arteko harremanak estutzea". Helburu horrekin atera ziren apirilaren 20an kalera Aretako dozenaka bizilagun. Aretako Eguna ospatu zuten, auzokideen elkargune izateko jaio den ospakizuna. Goizetik iluntzera arteko egitarau zabala antolatu zuten, herriko eragile eta norbanako ugariaren laguntzari esker.

Aretako bandera erraldoia altxatu zutenekoa izan zen unerik hunkigarri eta biziena, txaranga herriko batek lagunduta eta "independentzia" oihu artean. Aurrerantzean, eskolako aparkalekuko hagan eskegita geratuko da bandera, "aretarren izaeraren ikur".

"Auzokideak elkartzea eta garai batean Aretak zuen herri-izaera indartsua aldarrikatzea" izan dira hitzorduko helburu nagusiak, Unai Llano bizilagunak Aiara Komunikabideari azaldu dionez.

"Honakoa herritik eta herriarentzat antolatutako ekitaldia da", aldarrikatu du Llanok. Aretako bizilagunen artean aspalditik zegoen horrelako egun bat antolatzeko nahia, Kultur Etxearen itxieraz geroztik bereziki. "Kultur Etxea eta bertako taberna erreferentziazko elkargunea izan dira Aretako bizilagunontzat urte luzez, eta horren itxierarekin batera herritarron arteko harremanak apaldu egin direla ikusi dugu", azaldu du Llanok.

Aretako bizilagunentzako eguna antolatzearen ideia pan-

demia aurretik zuten mahaigainean, baina 2020az geroztik alde batera utzi behar izan zuten asmoa. 2023ko abenduan ideia horren bueltan elkartzeari ekin zioten berriro. Asanbladak egin dituzte hilabetez hilabete, eta lan horren guztiaren emaitza izango da larunbatean aurkeztuko dutena. "Ekitaldi herrikoia bat da funtsean, Aretari bizia ematea helburu duena". Aretako elkarte eta norbanako ugari batu dira egitaraua hornitzera, eta horrek ere aniztasuna eman dio programazioari: txistulariak, buruhandiak, makro-txopo txapelketa, dantza-plaza... Unai Llano Aretako Trikimako taldearen itzuleran nabarmendu du. 30 urteren ostean hanka-paluetan kalejiran aterako ziren bertako kideak, Aretako buruhandiek batera.

Laudio

Greban eta mobilizatzen jarraitzen dute Imegarreko langileek



Protesta ugari egin dituzte azken astean. [Aiaraldea.eus](https://aiaraldea.eus)

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Iragan astean abiatutako greba mugagabeen jarraitzen dute Imegarreko langileek, zuzendaritzak kaleratutako bi langileak berroartu dituzan. LABen hitzetan, azken egunetan jarraipen zabala izan du lanuzteak, eta beste gauza bat ere aipatu du sindikatuak: Lan Ikuskaritza Laudioko lantegira bertaratu zen astelehenean, eta beste langile bat topatu zuen grebalari baten lanpostua betetzen. Langileen ordezkariak nabarmendu dute "erabat legez kanpoko" dela hori. Azaldu dutenez, eurek deitu zuten lan Ikuskaritzara, bazutelako zuzendaritza horrelako mugimenduak egiten ari zirenen susmoa. "Orain, ikuskaritzak azalpenak eskatu dizkio enpresari lantegian ikusitakoaren harira", nabarmendu dute sindikatuko kideek.

Mobilizazio gehiago

Atzo Envaseseko langileekin batu zituzten indarrak, 13:30ean, Ugarteko lantegian egon diren kaleratzeak salatzen egindako den elkarretaratzean. Gaur kotxe karabana egingo dute herrian barrena eta ostegunean Aldai plazan egingo dute elkarretaratzea, 11:30ean.

Ostiralean, aldiz, mobilizazioa egingo dute goizean, 12:00etan Herriko plazan. Horrez gain, grebalariek piketeak egingo dituzte egunero, goizeko zein arratsaldeko txandean hasieretan (5:30ean eta 13:30ean, hurrenez hurren).


Elkartasun keinuak

Grebalariak elkartasun keinu ugari jaso dituzte dagoeneko lantegi aurrean muntatutako pikeetan. Aurreko astean Laudioko BM supermerkatuko langileen eta El Tunel jatetxearen dohaintzak jaso zituzten. Gaur, aldiz, Tubacexeko LABeko ordezkariak bertaratu dira piketera, eta 675 euroko dohaintza egin diete langileei.

Protestak protesta, beharginek ez dute oraindik inolako erantzunik jaso zuzendaritzaren partetik, LAB sindikatuak salatu duenez. Gauzak hala, aurrerajarraritu dute lanuztearekin. Aldarrikapen bakarra dute langileek: azken asteetan kaleratutako bi langileen berronartzea. Zuzendaritzak oharra plazaratu zuen grebaren lehen egunean, azalduz kaleratze horiek ez dutela zerikusirik lan sindikalariekin, bi kaleratuak LABeko kideak izan arren. Sindikatuak, aldiz, kontrakoa adierazi zuen, eta elkarriketak abiatzeko prestutasuna plazaratu zion enpresari.

Amurrio

Amurrioko hainbat enpresa komunitate energetikoa sortzeko urratsak ematen ari dira



Eguzki plaken instalazioa Laudio Faktoria espazioan. **Ruben Ladron de Gebara**

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Amurrioko 24 enpresa bildu dira GoienerAm elkartearen barruan, energia komunitate berria sortzeko urratsak emateko.

Amurrio Bidean garapen agentziak sustatutako elkartea da GoienerAm, eta honela definitu dituzte energia komunitatea sortzeko helburuak: "Energia komunitateak ohiko sare elektrikotik berezita dagoen eta energia berri-erabilerak erabiltzen dituen instalazio autosufiziente eta autonomoa partekatzen duten enpresek osatzen dute. Kide guztiek beren burua hornitzen dute, eta honen kostuak merkatzea eta in- gurumena zaintzea lortzen dute".

Gaur gaurkoz elkartea osatzen duten 24 enpresek 192 langile ordezkatzen dituzte guztira, udal-erriko hainbat poligono indus- trialetan sakabanatuta: bedera-

tzi enpresa daude Aldaiturriaga- ko enpresa-eremuan, zazpi Mas- kuribain, bost Saratxon eta bana Kaltzadako, Zankuetako eta Arto- mañako inguruetan.

Elkartera batzeko enpresa gehiagoren bila jarraitzen du Goi- nereAmek, eta Internet bidezko galdetegia osatu du interesa du- ten horientzako.

Arabako bigarrena

GoienerAm elkarteak aurten sortu nahi du Amurrioko enpre- sak bilduko dituen komunitate energetikoa. Amurrioko gisa ho- netako Arabako bigarren komu- nitate energetikoa litzateke, Lau- dio Group enpresa taldeak sortu berri duenaren atzetik. Laudio- ko bederatzi enpresek 100kWko po- tentzia duten bi instalazio jarri- ko dituzte urtea amaitu aurretik eta kontsumoaren %20-25 eguz- ki-plaketatik jasotzea aurreikus- ten dute.

Mobilizatzen hasi dira Amurrioko Udaleko langileak, alkatea komitearekin bildu eta negoziatzera bultzatzeko



Ostiralero ari dira mobilizatzen udaletxe aurrean. **Aiaraldea.eus**

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Mobilizatzeari ekin diote Amu- rrioko Udaleko langileak, "alka- teak uko egin diolako komitea- rekin biltzeari eta negoziatzeari". Apirilaren 12an egin zuten lehen elkarretaratzea, 11:00etan udaletxearen aurrean, eta aste- ro errepikatzen ari dira geroztik, ordu eta toki berean. Enpresa Batzordeak azaldu duenez, lan- gileen asanbladan hartu dute bo- rroka dinamika abiatzeko era- bakia, negoziazioen aktibazioa "behin baino gehiagotan" eskatu ostean Udal Gobernu Taldeari.

LAB, ELA eta ESANek osatzen dute komitea. Sindikatu horiek salatu dutenez, ez dute erantzun- nik jaso Udal Gobernuaren par- tetik, eta alkateak uko egin dio

langileei lotutako gaiak eurekin negoziatzeari, "udal hitzarme- nean jasotakoa eskubidea" den arren. Sindikatuen aburuz, bi dira landu beharko liratekeen gai nagusiak. Alde batetik, uste dute "urgentziatzeko" dela lan- postuen balorazioa egitea. Lan- gileen ordezkariek argudiatu dute lan hori jada egin dagoe- la inguruko hainbat tokiko era- kundeetan, Aiarako Kuadrillan edota Audio, Urduña zein Artzi- niegako Udaletan kasu.

Euren ustez, balorazioa egi- tea funtsezkoa da udal-langi- leek dituzten funtzioak "modu justu eta ekitatiboan" zehazte- ko, "Gobernu Taldeak eta Alka- tetzak hartzen dituzten eraba- ki arbitrarioak eta diskrezio- nalak" saihestuz. Nabarmendu dutenez, orain arte lanpostu ba-

tzuk baino ez dira baloratu, eta horrek "ezinegona eta sumindu- ra" sortu ditu tokiko erakunde- ko beharginen artean.

Erretiro aurreratuari lotutako pizgarriena da mahaigainean ja- rri duten bigarren gaia. Enpre- sa Batzordearen aburuz, eskubi- de hori berrezarri behar da, be- launaldi berriak administrazio publikoan sartzea ahalbidetuko lukeelako, besteak beste. Baina, salatu dutenez, sindikatuek aur- keztutako proposamen guztiak blokeatu ditu Udal Gobernuak, eta horrek kontrastea sortzen du inguruko erakundeetako egoe- rarekin: "Aldundi guztiek eta udal ezberdinek negoziatu di- tuzte formulak plantillak gazte- tze eta lan bizitzako azken eta- pan dauden langileei aurre jubi- latzeko pizgarriak bermatzeko".

bertako
igogailuak | ascensores

BENETAKO DROTARIKO ZERBITZUA
100€-tik/hileko

IGOGAILUEN
MANTENTZE-LANEN
ESKAINZA
ZORROTZENA

2.500 bezerok gugan
dute konfiantza

943 903 450
bertako.eus



erreportajea



EAJ eta EH Bildu inoiz baino berdinduago

EAJk irabazi ditu Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak Aiaraldean, EH Bilduri 42 boto eskaseko aldea aterata. Inoiz baino parekatuago daude eskualdean nagusi diren bi indar politikoak.



Testua **Almar Gutierrez Bidarte**

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeek are agerikoagoa egin dute alderdi abertzaleen nagusitasuna Aiaraldean. EAJk eta EH Bilduk botoen ia %70 eskuratu dute, %38 bakoitzak, eta alde nabaria atera diote hirugarren indarra den PSE-EEri.

Zenbaketa estua izan da gaur gauekoa, eta bi alderdi nagusiak inoiz baino berdinduagoak ageri dira Aiaraldeko mapa politikoan; EAEko argazki orokorrean baino are parekatuago. Boto kopuruan jeltzaleena izan da garaipena, gailentze hori boto kopuru txiki batek markatu badu ere. EAJk EH Bilduk baino 42 boto gehiago atera ditu; 8.413 eta 8.371 boto lortuta, hurrenez hurren.

Laudion gertatu da berdinketa tekniko horren adibiderik argiena, non bi indarrek boto kopuru berbera jaso duten: 3.327. Aiaran

ere murrizta izan da bien arteko aldea, hamaika boto baino ez jeltzaleen alde.

EH Bilduren hazkundea

Paradoxikoa dirudien arren, EAJk zein EH Bilduk dute zer ospatu eskualdean erdietsitako emaitzetatik. Jeltzaleek lehen indarra izaten jarraitzen dute Aiaraldean, eta ez dute nozitu 2020ko hauteskundeekiko EAE mailako boto galera. Hartara, botoetan ere gora egin dute, apalkibada ere, 108 boza berri eskuratuta.

EH Bilduk, aldiz, azken urteetako gorakada etengabearen bidean jarraitu du azken hauteskunde hauetan ere. Duela lau urte baino 2.072 boto gehiago jaso ditu, eta EAJri hegemonia lehiatzen oso gertu aurkitzen da. Izan ere, 2020an hautesleek %32,48k egin zuten zerrenda subiranistaren alde. Aurten, ordea, %38,26koa izan da babes hori.

Amurrion lehen indarra izan da

EH Bildu igandeko hauteskundeetan, 2020an baino 457 boto gehiago lortuta. Laudion ia mila botokoa izan da hazkundea, eta koalizioak udalerrri horretan inoiz lortu dituen emaitzarik onenak gainditu ditu. Udalerrri handienetatik harago ere, Urduñan, esaterako, EAEko hauteskundeetan inoiz lortutako emaitzarik onenak eskuratu ditu ezker independentistak.

PSE, PP eta VOX gora

Estatuko alderdiei dagokienez, PSE-EEK lortu du babes handiena. Sozialistek duela lau urte baino 299 boto gehiago jaso dituzte, hautesleek %9,3ren babesaz gertu. PPK ere gorakadanabaria izan du. Izan ere, beste 297 boto berri eskuratu ditu, 1.154 guztira, hautesleek %5,27.

VOX alderdi ultra-eskuindarrak ere indartu egin ditu eskualdeko babesak, minoritarioa izaten jarraitzen duen arren. Guztira, 434 aiaraldearrek egin dute Santiago

EH Bilduk azken urteetako gorakada etengabearen bidean jarraitu du azken hauteskunde hauetan ere; duela lau urte baino 2.072 boto gehiago jaso ditu, eta EAJri hegemonia lehiatzen oso gertu aurkitzen da

Abascalen indar politikoaren alde. Kontrara, ezker konfederala osatzen duten alderdiek behera egin dute. 2020ko hauteskundeetan batera aurkeztu zirenak Sumar eta Elkarrekin Podemos alderdietan banatuta agertu dira aurten; eta biek gaur lortutako botoen batura ez da duela lau urteko emaitzara iristen.


Aiaraldeko legebiltzarkideak

Guztira hemeretzi ziren Eusko Legebiltzarrerako Arabako eta Bizkaiko zerrendetan aurkezten ziren Aiaraldeko ordezkari politikoak. Hauteskunde gauak zerrenda doitu, eta bost izango dira azkenean eskualdeko ordezkariak osatzen den legebiltzar berria.

EAJk bi aiaraldear izango ditu Gasteizko parlamentuan: Ander Añibarro audioarra eta Jonatan Moreno amurriarra. EH Bilduko aukietan, aldiz, hiru izango dira eskualdeko ordezkariak: Eba Blanco, Julen Arzuaga eta Lamia Arcas.

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak 2024 vs 2020

Boto kopurua - Eskrutinioa: %100,00



ESKERRIK ASKO!

ehbildu



kultura



Hogei urteko ibilbidea berrikusten, formatu akustikoan plazaratzeko

Hogei urte igaro dira Luis Vilek bere bakarkako lehen lana plazaratu zuenetik. Urteurrena ospatzeko ikuskizun berezia prestatzen ari da musikari amurriarra. Irailean estreinatuko du Amurrio Antzokian.

Testua
Txabi Alvarado Bañares

2004. urterako Luis Vilek ibilbide oparoa zuen egina musikaren esparruan, hainbat proiektutan aritu baitzen 19 urte zituenetik; Ironic Cancer Phobia, Triturbo edota Ricoamor taldeetan, kasu.

Baina urte horretan erabaki garrantzitsua hartu zuen amurriarrak: bere bakarkako lehen lana plazaratu zuen, *Versos Ajenos* izenekoa. Bere hitzetan, hautu hori hartu zuenean hasi zen “benetan aske” sentitzen, eta bide horretan sakontzeari ekin zion.

Hogei urte igaro dira ordutik hona, eta emaitza oparoa utzi du bidean: sei album eta 30 *single* bideo-klip formatuan. Horrez gain, beste proiektu batzuk ere garatu ditu paraleloki, Maria Rivero eta Josean Vallerekin sortutako Luis Vil & La Brigada Político Social taldea kasu.

Orain, bi hamarkadek utzitako uzta berrikusteari ekin dio Vi-

lek, kantu esanguratsuenak bildu eta formatu akustikora moldatzeko. Abesti horiek berreskuratuta, ikuskizun berezia atondu nahi du Aiaraldeko sortzaileak, urtemuga oholntza gainean ospatzeko.

Atzera begira jarri eta kantuek berrikusterakoan, orotariko doinuekin egin du topo musikariak. “*Versos Ajenos* oso disko disko akustiko, liriko eta poetikoa da. *Prototipo*, aldiz, elektrikoa da, askoz punki eta politikoagoa. Eta bi lanen artean apur bat denetarik dago”, azaldu dio Vilek Aiaraldea Komunikabideari. Hala ere, bere ustez, kantuen “funtsa” eta “ideologia” ez dira aldatu 2004tik hona. “Nire kabuz eraikitzen joan naiz, etiketatik aldendu eta estilo propio bat sortuz”.

Ez da lan erraza izaten ari, 90 abesti baino gehiagoren artean hautatu behar izan baitu. “Azkenean hogei aukeratu ditut, eta horien gainean ari naiz lan egiten”, zehaztu du sortzaileak. Aurreratu

duenez, bere album guztietako laginak hautatu nahi izan ditu, bere “ildo lirikoetatik politikoenetara” doazen konposizioak hartuz. Aitortu duenez, “oso ilusionagarri eta sortzailea” suertatzen ari zaio bere kantu elektrikoak formatu akustikora moldatzea, eta horrek aukera emango dio entzuleari zerbait berria eskaintzeko, “orain arte entzundakoarekiko ezberdina”.

Irailean oholntza gainean

Osatu nahi duen ikuskizunari dagokionez, Vilek aurreratu du hiru pertsona igoko direla oholntza gainera: bera, gitarra eta ahotsarekin; Josean Valle, teklatuan eta koruetan; eta Vilen semea, Jona, baterian.

Hala ere, ez dira kontzertu hutsa eskaintzera mugatuko. Izan ere, zinemagintzan ere ibilbide mamitsua garatu du Vilek azken hamarkadan, eta hori nabaritu egingo da emanaldian. “Zuzeneko ikuskizun bat da, zerbait gehiago eskai-

Bere bakarkako ibilbideko 90 abesti baino gehiagoren artean egin du Vilek hautaketa. Ikuskizun berezia prestatuko du sortzaile amurriarrak, zeinetan pisu handia izango duen “alderdi bisualak”

ni behar da, eta nik garrantzi handia ematen diot alderdi bisualari”, azaldu du amurriarrak. Aurreratu duenez, “baso sorgindu” itxura emango diote oholntzari, zuhaitzen adarrak eta burdinoletatik ateratako piezak baliatuta.

Lehen kontzertuak badu data dagoeneko: Irailaren 14an eskainiko dute Amurrio Antzokian. Urriaren 8an, aldiz, Gasteizko Parral tabernan arituko dira. Basaurin edota Arrasaten ere ixtear dituzte emanaldiak, beste batzuen artean.

Aretotan jo nahi du Vilek batez ere, eta horretarako elkarlanean arituko da Zelako Kultur Ideiak kooperatibarekin. Hala ere, horrelako proiektuek “babes instituzional oso gutxi” jasotzen dutela uste du Vilek. Horregatik, musikariak argi du, aretoen atea jo ostean, “ohiko garito klasikoetara” joko duela, “non oraindik ere musika errespetatzen den entzuna izateko eta ez ostalaritza-erakargarri gisa”.

babestutako edukia



MODA BERRIA

FAKTORIAN

MAIATZA



03, barikua
17:00-20:00 · Faktorian
FORMAZIO JARDUNALDIAK/
**EKONOMIA SOZIAL
ERALDATZAILEA
AIARALDEAN**
2º SAIOA
DOAN
#EKONOMIASOZIALERALDATZAILEA



03, barikua
18:00 · Faktorian
BERBALDIA/
**AIARALDEKO
MENDIAK BIZIRIK**
DOAN
#EKONOMIASOZIALERALDATZAILEA
#INGURUMENA



10, barikua
18:00 · Faktorian
ASANBLADA/
**FAKTORIAKO IDEIEN
ASANBLADA**
DOAN
#AMESTEKOFAKTORIA



10, barikua
20:00 · Faktorian
KONTZERTUA/
IGOR ARZUAGA
BAZKIDEAK 5€ / EZ-BAZKIDEAK 7€
#MUSIKA



11, zapatua
10:00-13:00 · Faktorian
JARDUNALDIA/
**ENERGIA
KOMUNITATEAK
AIARALDEAN**
DOAN
#ENERGIAKOMUNITATEAK



11, zapatua
18:00 · Faktorian
GAZTE GAZTEAK/
**NERABEENTZAKO
IHES GELA**
DOAN
#AISIALDIA



12, domeka
11:00-13:00 · Faktorian
KOKORIKO/
**0-3 URTEKO
HAURENTZAKO
JOLAS LIBRERAKO
ESPAZIOA**
BAZKIDEAK 5€ / EZ-BAZKIDEAK 6€
#JOLASLIBREA
#0-3ESPAZIOA



16, eguena
19:00 · Faktorian
AURKEZPENA/
**ALDATU GIDIOIA
EUSKARAREN ALDE
EKIMENAREN AURKEZPEN
SOLASALDIA**
DOAN
#EUSKARA



17, barikua
20:00 · Faktorian
BERBALDIA/
**HABITATUTAKO
PABILIOI BAT
BEÑAT SARATXAGA
ARKITEKTAREKIN**
DOAN
#ARKITEKTURA



18, zapatua
11:30-13:30 · Faktorian
TAILERRA/
ZAINZA FAKTORIA
DOAN
#FEMINISMOA
#BOBORSOLASALDIAK



18, zapatua
16:30etik aurrera · Faktorian
KOKORIKO/
**HAURREN EGUNA
ETA GAUA**
DOAN
#FAMILIAK
#JOLASLIBREA
#BIZITZAJOLASA



24, barikua
18:00 · Faktorian
AURKEZPEN TERTULIA/
**KULTURARTEKO-
TASUN FAMILIAK**
DOAN
#KULTURARTEKOTASUNA



25, zapatua
**FAKTORIAREN
URTEURRENA**
18:30 · Herriko plazatik
KALEJIRA
20:00 · Faktorian
PARRILLADA
21:00 · Faktorian
KONTZERTUA/
ANARI
#BIZITZEKOFAKTORIA
#AMESTEKOFAKTORIA



31, barikua
17:00-20:00 · Faktorian
FORMAZIO JARDUNALDIAK/
**EKONOMIA SOZIAL
ERALDATZAILEA
AIARALDEAN**
3º SAIOA
DOAN
#EKONOMIASOZIALERALDATZAILEA



Maiatzak 11, zapatua

10:00etatik 13:00etara · Faktorian



ENERGIA BERRIZTAGARRIEN KOMUNITATEAK AIARALDEAN

Energiaren auzia gero eta determinanteagoa den garai hauetan, herritarren burujabetza, antolaketa eta ahalduntzerako lanabes ezin eraginkorragoa dira energia berriztagarrien komunitateak.

Aiaraldea Ekintzen Faktoriak, Goener Kooperatibarekin batera, Aiaraaldean sortzen ari diren eta sortu nahi diren energia berriztagarrien komunitateentzako topaketa eguna antolatu dugu maiatzaren 11an, zapatua.

Gure lurraldearen burujabetzaren eta autoeraketaren bidean gakoa den energiaren sorkuntza eta kudeaketa izango ditugu hizpide topaketa honetan, elkarrengandik ikasi, hausnartu eta laguntzeko, Aiaraaldeko energia komunitate askotarikoa ipar dugula.

+PROGRAMAZIO
GEHIAGO!



WEBGUNEAN/SARE SOZIALETAN
EKITALDI BERRIEN JARRAIPENA
EGITEKO AUKERA DUZU.



www.faktoria.eus

kultura

Olentzeroren lekukoa emateko garaia iritsi zaio Manolo Plazari



Hiru astez luzatu da filmaren grabaketa. **Endika Diaz**

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Bereziak izango dira 2024ko Gabonak Manolo Plaza Amurrioko Olentzero ezagunarentzako. Izan ere, 42 urtez ikazkinaren papera bete ostean, aurten azkenez jantziko da "entendimentuz". Honezker hasi dira Manoloren hutsunea beteko duen Olentzero berriaren bila, 2025eko neguan estreinatu dadin.

"Oso gustora egiten dut Olentzeroren papera, baina urtez urte nekatuago bukatzen dut", azaldu dio Manolo Plazak Aiaraldea Komunikabideari, "ekitaldi kopuruak gora egin du nabarmen: kalejirak, San Roke eta Kuskumendiko txangoak, ikastetxeetara bisitak... Ni ez naiz mahuka motzetan zebilen lehengo mutila [barreak]". Plazak adierazita koaren arabera, hiru urte eman ditu erabakia hausnartzen. Askoziren Olentzero izaten jarraitze- ra animatzen zutenak, baina, azkenean, erreleboa ematea erabaki du.

Ikazkin bila

Askok falta da 2025eko Gabonarako, baina Olentzero berri baten bila hasi dira dagoeneko Manolo Plaza eta berarekin batera urte luzez ekimenak antolatzen aritu diren Ohiturak taldeko kideak. "Odol berria beharrezkoa da", adierazi du Plazak, eta ziurtatu du "esperientzia" eskaintzen jarraituko duela.

Aholku bat ere utzi dio Aiaraldea Komunikabidearen bidez, Olentzeroren papera hartuko duen balizko hautagaiari:

"Zuk zeuk sinesten baduzu Olentzero zarela, gainerakoek ere sinetsiko dute. Hori da inportantea, ez itxura fisikoa". Talde on baten eta senideen babesaren beharrak ere azpimarratu ditu Plazak, Olentzeroren arrakastaren sekretu.

Olentzeroen arteko lekuko aldatetak, beste hainbat berritasunei ere ireki diezaieke atea, Plazaren iritziz. Bide horretan, Amurrioren Olentzerorekin batera Maridomingik ere bere lekua izateko aukera zabalik utzi du. "Maridomingi, ordea, ez da Olentzeroren laguntzaile soilia izan behar. Ez horixe, Olentzeroren maila berdinean dagoen pertsonaia izan behar du, edo Olentzerok baino garrantzia handiagoa". Zalantzarik gabe, bereziak izango dira datozen Gabonak Amurrioren.

42 urtez Olentzero

Kasualitatez sartu zen Manolo Plaza Olentzeroren paperean, AEKn euskara ikasten ari zela. Soldaduzkan lagun euskaldun asko egin zituen, eta berak ere euskara ikasteko beharra sentitu zuen. Hori dela eta, zerbitzu militarra bukatzean, AEKn eman zuen izena.

Laudioko Kiskik, euskaltegiko irakasleak, luzatu zion ikazkin jantzia janzteko gonbita. Floren Aldamaren lekukoa hartu zuen Plazak. 21 urte zituen, eta geroztik ez dio inoiz Gabonetako hitzorduari hutsik egin. Ibilbide luze hori goraiatzeko, Amurrioko Udalak Urrezko Guk Saria eman zion 2016an.

Hizkuntza gutxituen aldeko aldarria Europako Parlamentura eramandu Esti Urresolak



Apirilaren 16an izan zen sari banaketa Europako Parlamentuan. **LUX European Audience Film Award**

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Euskararen eta Europako gaintzeko hizkuntza gutxituen aldeko aldarria zabaldu zuen Esti Urresolak asteartean Europako Parlamentuan, LUX sariaren banaketan. Zinemagile audioarraren *20.000 especies de abejas* pelikula zegoen lan izendatuen artean eta, azkenean saririk irabazi ez zuen arren, txalo andanajazozuen Urresolak, parlamentarien aurrean eskainitako hitzartzeagatik.

Laudioarrak eskerrak eman zien jaialdiko arduradunei, bere filmari azpi-idatziak jartzeagatik Europako 24 hizkuntza ofizialetan, horrek "ate berriak ireki eta muga zaharrak hausteko" balio izan duela irizita.

Ingelesezt hitz egitera pasa zen jarraian, euskarari buruz solasteko. Hizkuntza "komunikazio sistema bat" baino gehiago dela aldarrikatu zuen, "estruktura sinboliko bat mundua ulertu eta sentitzeko". *20.000 especies de abejas* filmean dagoen hizkuntza aniztasuna jarri zuen horren adibide mo-

duan: "filmeko 8 urteko haur transarentzat, euskara ez da komunikazio kanal hutsa, bere burua adierazteko modu askeago bat baizik, euskarak ez duelako genero markarik". Goraiatzeko, Amurrioko Udalak Urrezko Guk Saria eman zion 2016an.

Simone de Beauvoir filosofoaren esaldi batetik tiraka, Urresolak nabarmendu zuen eskubide abstraktuak "aukera konkretuekin" batera garatu behar direla, bestela askatasuna "ilusio hutsa" izango delako. "Eskubide abstraktuez harago, hizkuntzek aukera konkretuak behar dituzte. Hizkuntza eta bere hiztunak benetako askatasunean bizi daitezten", aldarrikatu zuen zinemagileak, eta galdera bat bota zien parlamentariei: "Zergatik ez euskara, galiziera, sardiniera, korsikera... parlamentu honetan? Ideia horren aurka daudenek argumentu ekonomiko edo logisitikoak erabiltzen dituzte sarritan, baina hizkuntza aniztasuna sustatzea, sari-keta honetan egiten den bezala, bada ezberdina dena ikaste-

ko aukera gisa ikustea. Hizkuntza aniztasunak kooperazioa eta bakea sustatzen ditu, inoiz baino garrantzitsuagoa diren aferak".

Korrikari buruz

Bukatzeke, Korrika zer den azaldu zien Urresolak parlamentariei: "Hamaika egunez, ehunka lagunek 2.800 kilometro egin dituzte Korrika herri batetik bestera, egun eta gauez, gelditu gabe, elkarri lekuko bat pasatzen, eta aurtengoa inoizko Korrikarik jendetsuena izan da. Lekukoaren barruan mezu bat dago, Garazi Arrula idazleak idatzi du aurtengoa. Bertako esaldi bat aipatuko dizuet: 'Mundu oso bat kabitzen da euskaran'. Nire galdera: euskarak badu tokirik mundu honetan?"

Horri lotuta, "neurri eta aukera konkretuak garatzea" eskatu zien Urresolak parlamentariei, "hegemonia sinbolikoan ordezkaturata ez dauden pertsonen eskubide, identitate, errealitate eta hizkuntzak bermatzeko, benetako askatasun iraunkor eta egonkorra sustatuz".



Oinarrizko lanbide heziketa

Soldadura

Erdi mailako heziketa zikloak

Administrazio-kudeaketa

Instalazio Elektriko eta Automatikoak

Mantentze-lan Elektromekanikoa

Mekanizazioa

Soldadura eta Galdaragintza

Mikroinformatika sistemak eta sareak

Goi mailako heziketa zikloak

Zuzendaritzari laguntza ematea *2.maila soilik*

Administrazioa eta Finantzak

Sistema Elektromekanikoak eta
Automatizatuak

Automatizazio eta Robotika
Industrialak

Mekatronika Industrialak

Fabrikazio mekanikoko
Produkzioaren Programatzea

Espezializazio ikastaroak

Fabrikazio adimentsua

Eragiketa-teknologiaren inguruneetan
zibersegurtasuna



LANBIDE HEZIKETA AURREMATRIKULA EPEA:

Maiatzaren 6tik 24ra arte

Karmen kalea 17, LAUDIO (Araba) Tel: 946 72 05 05
secretaria@audioalde.eus www.audioalde.eus @audioalde_eskola

kirola

“Adrenalina gehiago ematen dizu vert-ak. Aire guztia nabaritzen duzu zure aurka eta hori oso ederra da”

ANE RAMOS IZAGAK (Amurrio, 2013) HARRIDURA SORTU DU ESPAINIAKO VERT TXAPELKETAN, BIGARREN POSTUA LORTU BAITU 18 URTETIK BEHERAKOEN KATEGORIAN, 11 URTE BAINO EZ DITUEN ARREN. PATINAJE MODALITATE MUTURRENETAKO BAT DA VERTA, 4,5 METROKO ALDAPA BATETIK BOTATZEA DAKARRELAKO.



Testua eta argazkiak **Txabi Alvarado Bañares**

Nola iritsi zinen Espainiako Vert Txapelketara?

Mezu bat bidali ziguten esateko apirilaren 6an izango zela txapelketa. Gu askotan joaten gara txapelketa egiten den tokira entrenatzera, eta pentsatu genuen: “Zer-gatik ez?”

Zer moduz joan zen txapelketa?

Oso ondo. Nik nekiena egin nuen, eta horrekin bigarren geratu nintzen.

Beste txapelketa batzuetan aritu zara?

Bai, Liga Norten ere bigarren postua lortu nuen. Botxo Contest txapelketan ere egon naiz. Txurdinagan egiten da, eta mundu osotik bertaratzen dira patinatzaileak. Hirugarren postua lortu nuen han, baina Euskadiko Txapelketa ere egiten dute bertan, eta bigarren geratu nintzen azken horretan.

Patinekin egiten den kirol modalitatea da verta. Zer du berezi?

Adrenalina gehiago ematen dizu modalitate honek. Botatzen zarenean eta “aereo” bat egiten duzuenean aire guztia nabaritzen duzu zure aurka eta hori oso ederra da.

Hainbat modalitate daude skate parketan egiten den patinajea. Bowl-a dago, park-a, street-a... eta gero verta dago, bost metroko ‘U’ handi batean egiten dena.

Eta zuk hori duzu gogokoen?

Agian bai, ordu gehiago igaro ditudalako bertan.

Beste modalitateetan ere aritzen zara?

Bowl-a Amurrioko parkean praktikatzen dut soilik. Park estiloa ere asko gustatzen zait, eta orain hasi naiz street egiten.

Eta nolatan hasi zinen verta praktikatzen? Ez da oso ezaguna eta Amurrioren ez dago horretarako azpiegiturarik ez klubik.

Nik txikitatik egin dut irristaketa Amurrio Patin Clu-

bean. Baina egun batean Amurrioko bowla eraikitzeke obrak ikusi nituen eta aitari galdetu nion zertarako baliotzen zuen. “Botatzeko”, erantzun zidan berak, eta nik esan nion patinekin bota nahi nintzela. Hor hasi nintzen.

Orduan, lehenbizi pentsatu zenuen hori egin nahi zenuela eta gero deskubritu zenuen bazegoela horretan aritzen zen kirol bat.

Hori da, bai.

Amurrioko bowla laster geratuko zitzaizun txiki.

Amurriokoan hasi nintzen botatzen, eta Laudion dagoen bowlera jo genuen gero. Oso txikia da, eta bertan hasi nintzen ariketak egiten. Amurrioko bowla inauguratu zenean bertan egon nintzen, eta entrenatzaile batek bere kontaktua eman zidan, Txurdinagara probatzera joateko. Bertan badago klub bat, eta bertako kideak badoaz Leioara edo Castrora patinatzera, eta ni eurekin. Orain Villasana de Mena alboan (Burgos) entrenatzen dut gehienbat, Europako vert garrantzitsuenetako bat dagoelako bertan.

Zenbat entrenatzen duzu astean?

Normalean astelehenetan eta igandeetan entrenatzen dut, eta gero batzuetan baita asteazkenetan, ostegunetan edo larunbatetan ere.

Asko entrenatu behar da ariketa bat ondo egiteko?

Bai, probatzea eta probatzea da. Espainiako Vert Txapelketan, adibidez, puntuatu egiten zen saltoaren altuera, zenbat malda erabiltzen zenuen, estiloa eta zailtasuna.

Zer da garrantzitsuen kirol hau praktikatzeko orduan?

Pixka bat denetarik. Trebetasuna, gehien bat.

Kanpotik ikusita, bost metroko aldapa batetik botatzea arrisurtsua dela iruditu dezake. Horrela bizi duzu zuk? Nola gainditu duzu kolpeak hartzeko beldurra?

Oso babestuta noa, baina ariketa batzuk egitean bai ematen duela beldurra erortzeak. Dena den, erortzen ikastea da egin behar duzun lehen gauza patinatzen hasten zarenean.

Lortutako marken ostean, zein da dituzun hurrengo erronkak?

Entrenatzen jarraitzea eta urte honetako Botxo Contestean postu onean geratzea, iaz bezala.

Horrez gain, Espainiako Selektzioko entrenatzaileak deitu ninduen Espainiako Txapelketaren ostean, berarekin entrenamendu bat egiteko. Horretara joan nintzen eta entrenamendu gehiago egiteko esan dit.

Zer moduz entrenamendu horietan?


Oso ondo. Munduko laugarren patinatzaile onena etorri zen Frantziatik, gurekin entrenamendua egiteko.

Eta epe ertain-luzera begira, zer helburu dituzu?

Txapelketa gehiagora joatea, jendea ezagutzea eta oso ondo pasatzea.

Lehiakortasuna edo lagun arteko giroa, zer nagusi vertean?

Patinaje lan giro oso ona dago, pike gehiago dago skatean.



LANBIDE HEZIKETA IZEN EMATEA Maiatzaren 6tik 24ra

- Metodologia aktiboak, erronketan oinarrituta
- Prestakuntza DUALA
- Erasmus programa

OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETA



ZURGINTZA
(A ereduan)



ELEMENTU MEKANIKOEN
FABRIKAZIOA (D EREDUAN)

ERDI MAILAKO ZIKLOAK



MANTENTZE - LAN
ELEKTROMEKANIKOA



MENDEKOTASUN
EGOERAN DAUDEN
PERTSONEI ARRETA



MEKANIZAZIOA

GOI MAILAKO ZIKLOAK



MEKATRONIKA
INDUSTRIALA
(Ingelesez ere)



GIZARTE
INTEGRAZIOA
(A eta D ereduan)

Etxebarriaur kalea, 6 01470 Amurrio, Araba
945 39 30 00 // zaraobe@zaraobe.net



www.zaraobe.net

[@zaraobeinsti](https://x.com/zaraobeinsti)

[@ieszaraobebhi](https://www.instagram.com/ieszaraobebhi)

kirola

FUTBOLA

Kamiseta berezi batekin ospatuko du Amurrio Clubek 75. urteurrena



Amurrio Clubeko jokalariek 1976ko denboraldian. Amurrio Club

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Amurrio Clubek 75. urteurrena ospatuko du aurten. Horretarako, hainbat jarduera eta ekimen prestatu dituzte. Klubaren historia laburbiltze aldera, talde amurriarrak bere ibilbide guztian zehar izan dituen aurkarien banderaxoen erakusketak atondu du Basarteko futbol zelaian bertan. Besteak beste, Athletic Club, Real Sociedad, Cadiz edota Racing de Santander taldeen ikurrak bildu dituzte. Erakusketak ikusi nahi duen orok edozein partida egunetan izango du horretarako aukera. Dena dela, hori ez da izango klubaren historia birpasatzeko prestatutako duten erakusketa bakarra. La Casonakere Amurrio Clubaren argazki zaharren eta irabazitako garaikurren bilduma jasoko du aurki. Efemeridea borobiltzeko, gainera, Athletic Clubeko emakumezkoen taldeak partida bat jokatuko du Amurrioko futbol zelaian, oraindik data zehaztu ez duten arren.

Oroigarriak

Amurrio Clubek kamiseta bereziak jarriko ditu salgai. Elastiko hauek, 75. urteurrenako irudia ez ezik, klubeko jokalariek eta bazkideen izenak izango ditu ere. Gainera, ohikoan partidak ikustera hurbiltzen diren haurrei ere luzatu diete haien izenak kamisetan jartzeko aukera. Giltzarrapoak ere jarri dituzte salgai partida egunetan. Azkenik, Trojgaragardo etxeak botila bereziak kaleratuko ditu Amurrio Clubeko logoarekin. Herriko tabernetan eskuratu ahalko dira botila horiek.

Ibilbide luze eta oparoa

1949ko uztailaren 13an sortu zuten ofizialki Amurrio Club, herriko gazte talde baten eta abadearen egitasmoari esker. Sorrera hartan, 282 bazkideren babesa jaso zuen klubak eta Bizkaiko hirugarren mailan jokatzeari ekin zion. Laudio Alzarrate taldearen aurka jokatu zuen Amurrio Clubek bere lehenengo norgehiagoka, eta 2-3 garaitu zituen audioarrak.

Aurretik Amurrioren egondako bi futbol talderen lekukoa hartu zuen klub zuri-urdinak: Circulo Artesano (1927-1934) eta gerra ostean sortutako Sporting de Amurrio (1947-1948).

Berrogei urtez Bizkaiko Federazioaren zenbait kategorietan jokatu zuten amurriorek, harik eta, 1980ko hamarkadan, Arabako Futbol Federazioa sortu zuten arte. 1989/1990 denboraldian ekin zioten Arabako kategorian baxuenean jokatzeari.

Hain zuzen ere, Arabako Federazioaren barruan lortuko zituen klub zuri-gorriak bere lorpenik anguratsuenak. 1993/1994 denboraldian Bigarren B Mailara igotzea lortu zuen, eta hamabi denboraldi iraun zituzten bertan. Maila horretan jokatzeko arizirela, hiru denboraldiz jarraian lortu zuten Errege Kopako kanporaketan sartzea, eta Lehen mailako Athletic Club eta Racing de Santander taldeen aurka jokatu zuten.

Klubaren lorpenik handiena izan zen Bigarren A Mailara igotzeko fasera sailkatzea, 2000/2001 denboraldian. Denboraldi hartan laugarren sailkatu ziren ligan, eta igoera-fasean hirugarren geratu ziren zuri-urdinak.

TXIRRINDULARITZA

Iñigo Uriak irabazi du Lapurtarren Itzulua

Testua
Aitor Aspuru Saez

Iñigo Uriak garaipen garrantzitsua lortu zuen Euskal Herriko Iparraldean igandean. Hain zuzen, Lapurtarren Itzulian izan zen, Baionan hasi eta Lizarrietako gainan amaitu zena, bost kilometroko igoeraren ondoren.

Lasterketak ihesaldi nagusi bat izan zuen eta, tropelak bertan behera utzi ostean, Iñigo Uriak aukera baliatu zuen eta maldan gora ekin zion buruan jartzeari. Saiakera horretan ez zen bakarrik egon, hiru taldekidek babes-

tu baitzuten. Hori dela eta, Uriaren lehen postuarekin batera, Iker Colmenero audioarrak laugarren sartzeari lortu zuen metara.

Izan ere, aiaraldearekin josita dago Alimco Campagnolo taldea. Hodei Muñoz izan zen lehenengo klubean sartzen aurreko denboraldian, baina orain Iñigo Uriak, Iker eta Oier Colmenero eta Ekhi Uriarte ere daude. Berez, Aiala Txirrindularitza Taldeak egindako lana profitatu du Alimco eta uzta handia jaso du eskualdean.

Eskualdeko txirrindulariek podium sorta duina lortu dute tal-

derako. Esaterako, Hodei Muñoz luiaondoarrak Amorebietako Klasikoa irabazi zuen esprintean martxoaren amaieran. Astebete lehenago Iñigo Uriak bigarren postua eskuratu zuen Antzuolako Uzarragara Igoeran, eta hurrengo egunean Iker Colmenero nagusitu zen Altsasun, Hodei Muñoz bigarren izan zen bitartean.

Martxoaren erdialdean Ekhi Uriartek eraman zuen garaipena Berriatuan eta astebete lehenago Iñigo Uriak podiumera igo zen Altsasun, hirugarren postua erdie-tita.



3. urte

AMETSAK

AIRERATUZ

FAKTORIA JAIA

Maiatzak 18 Faktotxiki gaua

16:30 Ludoteka, jolas librea, puzgarriak
 18:30 Pizza tailerra
 20:00 Afaria + Gaubela
 21:00 Gaubela
 Ekarki kuxinak, lotarako gauzak eta esku-argia

Maiatzak 25 Urteurren jaia

18:30 herriko plazatik, kalejira musikatua
 20:00 Faktorian, parrillada (doan)
 21:00 kontzertua,

Anari

Sarrerak salgai faktoria.eus-en:
 13€ bazkideak // 15€ ez bazkideak.

© Errotari kalea, 4-8 pabilioia, Laudio (Araba)
 ☎ 688 64 79 42 ✉ faktoria@aiaraldea.eus

FAKTORIA

www.faktoria.eus



herriko plaza

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia agurrak@aiaraldea.eus helbidera eta Aiaraldea.eus atarian plazaratuko dugu. Maiatzaren 8an argitaratuko da hamabostekariaren hurrengo zenbakia.



Mire

Zorionak Prudencia! Ondo ospatu, eta ajea pasatzeko bolita homeopatikokoak hartu! Maite zaitugu!

Soinufroga



**BIDALI
ZURE
ZORION
AGURRA!**

Denborapasak

ERRAZA

		6	3					7
		8	6	5			9	
2	1		7	4	9			8
				3				
			4	8	6		7	
8	3	5		9		2		
5		7			3			6
			8			4		
			2					5

OSO ZAILA

1	4		3				7	
8								
	6					1		
	1		7					2
3		4	8		5			9
								1
4		6					8	
		5				3	1	
			4			2		

DENBORAPASEN SOLUZIOAK Sudoku, hitz-gurutzatu eta hitz gezidunen soluzioak webgunean ikusgai: <http://www.aiaraldea.eus/users/denborapasak>

Zozketa



Doctor Deseoren azken diskaren zozketa egingo du komunikabideak

Doctor Deseoren azken diskaren zozketa

Parte hartzeko: www.aiaraldea.eus atarian **Zozketa:** Maiatzak 3, 15:00etan.

**QUICK PC
REPAIR** 
Informatika argi eta erraz

**ETXEZ
ETXEKO
ZERBITZUA**
gainkosturik
gabe

· Salmenta · Konponketak

· Informatika-ekipamenduen eta STen inguruko prestakuntza ematen dugu negozio eta etxeetarako

· Bezeroaren premietara egokitutako fakturen eta tiketen diseinua, eta kudeaketa-programen diseinua

Galdetu PC eta ordenagailu eramangarrien **REMOVE PLANA**ri buruz

Dionisio Aldama 2, AMURRIO · 685 70 19 56 · 945 03 48 12
www.quickpcrepair.es · quickpcrepair@quickpcrepair.es

KOKORIKO

IRAKURKETA GUNEA

MUNDUKO KARRAMARRORIK ERTAINENA

Idazlea: Uxue Alberdi

Ilustratzailea: Ruth Juan

Argitaletxea: Begiko

Karramarro asko daude munduan, Harkaitzetan jarrian asko dira, ezberdinak eta anitzak. Harro Karramarroak bere tokia bilatu nahi du, bere izaera aldarrikatu..



HOLAKOAK DIRA GURE HILEKOAK

Idazlea: Carolina de Prada Anton

Itzultzailea: Itziar Diez de Ultzurrun

Argitaletxea: Txalaparta

Adina: 8 urtetatik gora

Hilerokoa leku eta apektu ezberdinetatik lantzen duen ipuina da. Gorputz ezberdinek zelan bizitzen duten egoera ezberdinak.



BARRASKILOAK



AZALPENA:

Udaberria eta barraskiloak batera etorri dira. Barraskiloan txiki txikia dira eta hauek ikusten lurrera makurtu eta Amalurrean dagoen mikro-mundura salto egin behar dugu.

Amalurrez gozatzeko, barraskiloak aztertzea proposatzen dizuegu. Hauek ikusi, aztertu, eta beraien mugimendu geldoaz hipnotisatu.

Eguneroko estresa alde batera utzi eta barraskiloen geldotasunaz gozatu.

Barraskiloak naturan bizitzen jarraitzeko, Amalurra omentzeko eta barraskiloen gozatzeko etxean usteko Totem bat egitea propoatzen dizuegu. Norberak eginiko Totem bat barraskiloekin gozatu duguna gogora ekarriko diguna.

MATERIALAK:

- Sua
- Lapikoa
- Bola
- Bi bote parafina
- Parafina
- Metalezko goilarak
- Kolorantea
- Olio esentziak
- Metxak
- Egurrezko makilak
- Moldeak
- Pegatinak

ZELAN EGIN BAT?:

1. Parafina urtu behar da. Horretarako jarri lapiko bat urarekin eta irakiten jarri. Lapiko horren gainean bol bat jarri eta bolaren barruan parafina urtu.
2. Parafinarik ez baduzu, kandela txikiak berziklatu daitezke.
3. Behin urtuta dagoenean, kolorea eta usaina sartu ahal zaie kandelei. Horretarako merkatuankolorante eta usain esentzia ezberdinak daude.
3. Hartu barraskilo moldea eta metxa jarri. Metxa zuzen mantentzeko bi makiltxo jarri. Bi aldetako pegatina bat ere jarri ahal zaio metxari azpitik zuzen mantentzeko.
4. Metalezko boteekin urtutako parafina hartu eta moldera kontu handiz bota.
6. Ondo nahastu molde guztia hartzeko.
7. Parafina ondo seikatzen utzi gogortu arte. Momentu honetan kalera irten ahal zarete benetako barraskiloak aztertzeraz
8. Desmoldatu eta etxean jarri, gure udaberriko totema bezala.

GOZATU AMALURRAZ BAI NATURAN ZEIN ETXEAN ERE!



KOKORIKO
HEZKUNTZA FAKTORIA

Uda

Udaberrian sartu ginen eta jadanik uda parez pare daukagu. Haur eta nerabeek oporrak hartuko dituzte segituan, urte guztian topera ibili ondoren, merezitako deskantsua hartuko dute. Haurren oporrekin batera, gurasoen malabareak has- ten dira. Zer egin haurrarekin helduak lan egin behar badu?

Ez da erantzun erraza eta urtero pertsona askori eragiten dion kontua da. Kontziliazioa ez da existitzen, bakoitzaren egunaren denboralizazioa ez du bat egiten uztailen ezta abuztuan ere. Horregatik soluzioa ikusten dugu Udaleku eskaintzan.

Udalekuak geroz eta gehiago bihurtzen ari dira, heldua lanean dagoen bitartean, haurra usteko leku bat. Hori dela eta, haurrak uda guztia ematen dute, udalekuetatik udalekuetara. Udalekuak gozamenerako gune bat izan beharko ziren eta ez eskola orduak ordezkatzeko dituen gune bat. Udalekuak haurrei begira egon beharko lukete eta ez gurasoen beharretara begira. Hala ere, ez da erraza haurraren deskantsurako eta gozamenerako beharra eta helduaren lan egiteko ezinbestekotasuna bat egitea. Ez da erraza kontziliatzea.

Hori dela eta, udaleku eskaintza zabala aztertuta, haurrarentzako egokiena den sistema bilatzea interesgarria izan daiteke. Uztaila guztia udalekuetan egon arren, tartekatuta egunak, haurrak tartean egunen bat deskantsurako aukera izatea. Modu honetan haurrek gehiago gozatu dute dagoen eskaintzaz, ez dira eskaintzaz aspertuko eta arnas hartuta idartsuago parte hartuko dute proiektuetan.

Udalekua aukeratzekoan fokoa haurraren jartzen badugu, aukeratu noski haurraren beharretara egokituta egon daitekeen proiektu bat. Haurra erdigunean jarriko duen proiektu bat, jolasean oinarritzen dena. Haurrarentzako egina egon behar du eta ez helduak udalekuetatik lortu nahi duenarekin. Udalekuetan ez bilatu bestelako helbururik, soilik haurraren ongizatea, ikasteko garaia beste bat izan dadila.

Azkenik eta gure herrian ezinbestekoa ikusten dudana, aukeratu euskara haurraren aisialdian. Aukeratu euskara ardatz izango duten proiektuak. Txertatu euskararen harria zuen haurren bihotzean, euskaraz udalekuetan gozatuz.

AIARALDEKO HEZKUNTZA FAKTORIA

Urtebetetzeetan abesten dugun kantu ezaguna Kaxianorena da, eta leloa buruz dakizu:

Zorionak zure urtebetzean, Zorionak ta urte askotarako, Zorionak belarritik tiratzean, Zorionak ta musu bat zuretzako.

Eman irudiño bakoitzari bere hizkia eta abestiaren lehen ahapaldia azalduko zaizu. Horretarako, erabili beheko alfabetoa.

ZORIONAK!

HIZKI-MARRAZKI ALFABETOA

A	B	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P
R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	.	,	:	?	!	-

Hau da urtebetetze festa oparoa! Hemen gauza asko dago jateko! Irudi honen eta alboko bere islaren artean dauden aldeak aurkitu behar dituzu. Hamaika dira guztira.



SOLUZIOAK

Kontra

Mundutik Aiaraldera

Aiaraldea.eus



Martin Trafoier

JAIOTERRIA
SÜDTIROL

BIZILEKUA
LAUDIO

BIDAIAREN XEDEA

LAUDIO BHI-KO IKASLEEKIN BATERA ERASMUS+ PROGRAMAN PARTE HARTZEA



SÜDTIROL



DESKRIBAPENA

Südtirol edo Hego-Tirol Italia iparraldeko probintzia autonomoa da, Tirol eskualde alemandunaren hegoaldeko zatia. Mugimendu autonomistek eta Tirol batuaren aldekoek indar hanida dute bertan. Eskualdeak autogobernu maila oso altua dauka italiar estatuaren barruan. Bozen-Bolzano da hiri nagusia.

AZALERA

7.400 kilometro koadro.

BIZTANLEAK

503.173 biztanle.

HIZKUNTZAK

Alemana eta ladinoa dira hizkuntza nagusiak.

Argitaratzailea:

Aiaraldea Kooperatiba Elkarte
Tirada: 10.000 ale.
Maiztasuna: Hamabostekaria
Lege gordailua: BI-1230-2013
Posta elektronikoa:
 egunkaria@aiaraldea.eus
 agenda@aiaraldea.eus
 erredakzioa@aiaraldea.eus
Publizitatea: publizitatea@aiaraldea.eus
Tlfnoa: 688 62 53 94
Helbidea: Errotari kalea 4-8 pabilioia, Laudio, Araba. 01400
Telefonoak: 94 656 85 54/688 62 59 00
Web-gunea: www.aiaraldea.eus
ERREDAKZIO OHARRA: Aiaraldea Aldizkariak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

ESKER BEREZIAK BANATZAILE BOLUNTARIOEI:

Sofia Cisneros, Aitziber Alava, Josu Zabala, Genma Corbella, Endika Arribas, Christian Alemany, Gartzzen Garaio, Aitor Fernandez, Jon Catalan, Iñaki Larrakoetxea, Jabi Asurmendi, Lander Ria, Xabi Ugalde Alberto Gutierrez, Eunatze Molinuevo, Ekhiñe Etxepeteleku

“Jendeak asko eskertu du euskaraz genekizkien hitz apurrak entzutea”

Nondik etorri zarete Laudiora?

Gu Südtirolgoak gara. Italiako iparraldean gaude kokatuta, baina jende gehienak alemaniarrez hitz egiten du. Partekatzen dugun beste ezaugarri bat da zabalera. Euskal Autonomia Erkidegoak bezala, 703.000 kilometro karratu ditugu. Hori bai, gu 530.000 biztanle gara eta hemen askoz gehiago zarete.

Gure lurraldea menditsua da, Alpeen erdian baikaude eta gure tontor handienak ia 4.000 metro ditu eta mendiek inguratzen dituzte gure udalerrriak.

Zein da Südtirolen historia?

Gu Austriaren parte izan ginen sei mendez, baina I. Mundu Gerra amaitzean, Italia barruan geratu ginen. Egun batetik bestera jendea atzerriko herrialde baten kide zen, ez zekien bere hizkuntza eta ez zuen ulertzen.

1922an Benito Mussolinik hartu zuenean boterea, faxistak saiatu ziren gure lurraldea italiarri-

tzen. Alemaniara debekatu zuten, baita kultura hori sustatzen zuten elkarteak ere. Alemaniara legez kanpokoa zen. Esaterako, nire aitonen izena Josef zen, baina agiri ofizialetan Giuseppe.

Jendeak ez zuen nahi italiarri-zatua izatea.

1939an Hitlerrek eta Mussolinik akordioa lortu zuten eta alemaniarrek izan nahi zutenek Alemaniara jo behar zuten. Besteak italiarrak bilakatu behar ziren eta kultura alemaniar eta austriarrari uko egin behar zioten.

II. Mundu Gerra amaitu zenean, jende askok espero zuen Südtirol Austriara itzuliko zela, baina Austria ez zen jadanik estatu bat. Hortaz, Italia barruan geratu ginen, baina autonomia bermatu ziguten. Parisen sinatu zen nazioarteko akordioa eta garatu dugu. Autonomia oso ona daukagu eta ordaintzen ditugun zergen %90 itzultzen dira gure lurraldera eta, erlatiboki aberatsak garenez, diru asko bi-

deratzen dugu hezkuntzara, azpiegiturretara...

Biztanleriaren bi heren alemaniarrez mintzatzen dira, heren bat italiarrez eta badago gutxiengo txiki bat ladina baliatzen duena; 20.000 hiztun inguru dira. Hiru hizkuntzak dira ofizialak.

Eramus+ programaren aurten- go gaiak dira autonomia eta hizkuntza gutxituak. Nola heldu zineten Euskal Herrira?

Ikerketa apur bat egin genuen, ikasi genuen Gernikari buruz, Francok egindakoa euskal kulturari eta herriari eta herri elebiduna dela. Sumatu dugu jende pilok hitz egiten duela gazteleraz eta ez horrenbeste euskaraz.

Zer moduz egonaldia?

Egon ginen gabarraren jaitsera ikusten eta asko gozatu genuen. Eraman ditugu Athleticeko bufandak. Halaber, konturatu gara hemengo paisaia erlatiboki antzekoa

dela; menditsua, badago nekazaritza... Jendea oso atsegina da eta ikasleek oso gogoko dute.

Laudion paseoa egin dugunean eta dakizkigun hitz apurrak erabili ditugunean (kaixo, agur, eskerrikasko, zer moduz...) herritarrek asko eskertu dute. Etxean egongo bagina bezala sentitu gara.

Zer kontatuko duzue Südtirolen Euskal Herriari buruz?

Antzekotasun ugari sumatu ditut. Jendea irekia eta atsegina, lasaia, eta lurraldea oso polita. Zorte oso ona izan dugu eguraldiarekin eta horretan ere antzekoa da. Negua oso hotza da, baina uda beroa, 30 gradura heltzen dira tenperaturak

Gabarrari buruz ere mintzatuko gara, inork ez dugu horrelakorik ikusi: Jende andana, baina giro baketsuan eta lagunkoian, oso alai izan zen dena, inork ez zuen oihukatu edo bultzatu... Jende oro zegoen pozik eta umore onez.

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:

